

**2023KO OTSAILAREN 28AN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko otsailaren 28an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2023-01-31ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO URTARRILAREN 26TIK 2023KO OTSAILAREN 22RA (2023/24 - 2023/45).**

Alkatetzak 2023ko urtarrilaren 26tik 2023ko otsailaren 22ra bitartean (2023/24 - 2023/45) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- TOLOMENDI LANDA GARAPEN ELKARTEKO 2023KO UDAL EKARPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak azaldu du, urteroko ekarpenaren kuota finkatu dela eta jarraian bozkatzera pasa dira zinegotziak.

Tolosaldeko Landa Garapen Elkartek, "TOLOMENDI"k 2023ko otsailaren 14ean ospatutako kideen urteko Batzar Orokorrean, 2023. urterako Elkartearen funtzionamendu gastu arrunten aurrekontua onartu zuen. Urteroko banaketa irizpideen arabera, IRURAKO UDALARI 3.405,80€ko diru ekarpena egitea dagokio.

### **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **4.- MOZIOA. EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "RASD-EN 47. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN PROPOSAMENA".**

Alkateak aurkeztu du mozioa eta Noelia eta Olaia zinegotzien artean irakurri duten mozioak honela dio:

#### **RASD-EN 47. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN PROPOSAMENA**

Egun batzuk barru, 2023ko otsailaren 27an, saharar herriak Saharako Estatuaren (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa - RASD) sorreraren 47. urteurrena ospatuko du.

Mendebaldeko Sahara okupatu eta saharar herriaren borrokaren 47 urte igaro ondoren, egoera konpondu gabe dago oraindik, eta, bai lurralde okupatuetan bizi diren biztanleek, bai Tindoufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnek, giza eskubideen urraketak pairatzen dituzte eta Marokoren okupaziopean edo errefuxiatu kanpamentuetan bizitzera behartuta daude.

Testuinguru horretan, Fronte Polisarioaren eta Marokoko Erresumaren arteko elkarrizketak desblokeatzeko Nazio Batuek emandako pausoak, Staffan de Mistura diplomatiko italiar-suediarra izendatu ondoren, 2021eko azaroaren 1ean, bere Mandatari Pertsonal berriak aurrerapausorik gabe jarraitzen du, Maroko oztopatzen ari delako; izan ere, Mistura jaunak 2022ko urtarrilean bira bat hasi zuen eskualdean, aldean arteko bake-prozesua berpizteko asmoz, baina, beste behin ere, Marokok eragotzi egin dio De Mistura jaunari Marokoko Erresumak okupatutako Lurralde Ez Autonomoa bisitatzea, 2015etik edozein ikuskaritza independenteri erabat blokeatuta baitago, baita NBEko Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoari ere.

Jakina da oraindik ez dela MINURSOren (Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioa) arduraren giza eskubideak zaintzea Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan. Gainera, su-eten akordioaren amaieraren aurrean, 2020ko azaroaren 13an, sahararrek

Marokoren okupaziopean bizi duten egoera oso kezagarria da, gogortzen ari direlako.

Okupatutako Mendebaldeko Saharan giza eskubideen urraketak ez du etenik izan 1975etik, baina su-etena hautsi ondoren, Marokoko okupazio-indarrek presentzia militarra eta paramilitarra areagotu dute, sahararren oinarritzko eskubideen urraketak areagotuz, eta, ondorioz, haien egoera izugarri okertu da. Etxebizitzetan indarrez sartzen dira, eta biztanleak atxilotu, mehatxatu, eta torturatu egiten dituzte. Auzo osoak benetako ghetto bihurtu dira, Marokoko indarren etengabeko zaintzapean, eta haien helburu nagusia giza eskubideen defendatzaileak eta okupazio-indarren aurkako disidentzia-ahotsak isilaraztea da, Sultana Jaya aktibistaren eta bere familiaren kasuan nabarmentzen den bezala, indarkeriaren eta bortxaketaren biktima izan direnak. Hori guztia Nazio Batuek aitortzen duten bere herriak autodeterminaziorako eta independentziarako dituen eskubide legitimoak defendatzeagatik.

Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak ez du inolako interesik erakutsi Marokoko segurtasun-zerbitzuetako kide askok Sultana Jayaren familiari Bojador okupatuan etengabe, gau eta egun, egiten dioten jazarpenarekiko.

Nazioarteko araudi gehienek delitutzat jotzen dute arriskuan dagoen pertsonari ez laguntzea.

Europar Batasunak eta Marokok arrantzaren arloan lortutako akordioari dagokionez, Europako Justizia Auzitegiaren epaia albiste eta aurrerapen garrantzitsu gisa hartu zen. Epaia horren arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna ez dute onartzen ez Europar Batasunak ez haren estatu kideek, ezta, modu orokorragoan, NBEk ere". Hala ere, eta epaia horren aurka, 2019ko otsailaren 13an, Europako Parlamentuak Marokoko Erresumaren eta Europar Batasunaren arteko negoziatutako akordioa onartu zuen, zeinak okupatutako Mendebaldeko Sahararen lurraldea barne hartzen duen legez kanpo.

Eskualdeko eskala militar berriaren ondoren, eta Fronte Polisarioaren XVI. kongresuaren ondoren, non herriak Marokoren okupazioaren aurkako erresistentzia areagotzea eskatu duen, oso une konplexua bizi da, Europar Batasunarentzat estrategikoa den eskualde baten egonkortasuna arriskuan jartzen duena. Testuinguru horretan, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiaren aurka, gauzatutako gertakarien politika bat inposatu nahi da saharar herriaren eta Fronte Polisarioaren pazientzia ahultzeko asmoarekin.

EBko Auzitegi Nagusiak Fronte Polisario/EBko Kontseiluaren gaitan emandako epaiek (2021eko irailaren 29a) baliogabetu egin zuten EB-Maroko akordio ekonomikoak Mendebaldeko Saharara hedatzea.

Era berean, oso beharrezkoa da misio instituzional desberdinen lana, lurralde okupatuetan sahararren aldeko adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideen urraketa larriak egiaztatzeko, eta Nazio Batuen ebazpenak betetzeko eta giza eskubideak errespetatzeko exijitzeko.

### **Horregatik guztiagatik:**

**BERRESTEN** dugu Fronte Polisarioa dela Saharako Herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra, NBEk eta nazioarteko komunitateak hala onartuta.

Berrir **SALATZEN** dugu Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpoko dela, eta ezin duela eragin juridiko edo politikorik izan saharar herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzeko.

**BAIEZTATZEN** dugu Mendebaldeko Sahara Lurralde Ez Autonomoa dela, Nazioarteko Zuzenbidearen menpekoa, inoiz ez da Marokoko Erresumakoa izan, eta, horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa bertan behera uzteko eta Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatea ahalbidetzeko exijitzen diogu.

Erreferentziatzat **JOTZEN DUGU** Auzitegi Nazionaleko Zigor-arloko Salako Osoko Bilkuraren autoa, Espainiari buruzko erabakia hartzen duena Mendebaldeko Saharako iureko potentzia administratzaile gisa.

Marokoko Erresumari **EXIJITZEN** diogu saharar preso politikoak eta kontzientziako presoak berehala aska ditzala eta kontrolatzen dituen espetxeetan giza eskubideen urraketak eten ditzala, presoan osotasun fisikoa eta psikikoa bermatuz. Era berean, elkertasuna adierazten diegu haien familiei.

**ERABAT GAITZESTEN** dugu Marokoko Gobernuak bere itsas eremua Mendebaldeko Saharari zuzenean eragiten dioten uretan ezartzeko hartutako aldebakarreko erabakia, Nazio Batuen Erakundearen Itsas Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazitakoa eta Marokok onartu duena urratuz.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharan Marokoko Gobernuak emandako epaiak gorabehera, baliabide naturalen espoliazioa **SALATZEN DUGU**, eta zonaldean jarduten duten enpresei nazioarteko zuzenbidearekiko eta sahararren eskubideekiko errespetua exijitzen diegu, interesatuei (enpresei eta herrialdeei) Saharako Herriaren ordezkari legitimoarekin, Fronte POLISARIOAREKIN, negoziazioei ekiteko eskatuz.

Espainiako Gobernuko presidentek Mendebaldeko Sahararekiko Marokoren autonomia-proposamena defendatzean izan duen jarrera aldaketa **SALATZEN** dugu; izan ere, Espainiak amaitu gabeko deskolonizazio-arazo bat baita eta lurraldearen potentzia administratzailea izaten jarraitzen baitu.

Egoera horren aurrean, bi jarrera posible baino ez daude: alde batetik, anbiguotasunik gabe Nazio Batuen eta Afrikako Batasunaren prozesu politikoei laguntzea, bidezko konponbide politiko eta behin betikoa lortzeko. Edo, beste alde batetik, Nazioarteko Zuzenbidearen inposizioei entzungor egitea eta Espainiaren interesak Marokoko Erresumak Nazioarteko Zuzenbidearen, Saharar herriaren Autodeterminaziorako Eskubidearen eta interes geoestrategiko eta ekonomikoen aurka dituen desioen mende jartzen jarraitzea; nahiz eta ez liratekeen bateraezinak izan behar, baizik eta horiek uztartzea gaur egungo

nazioarteko sistema multilateraleko edozein herrialdek lortu beharko lukeen moduan.

Otsailaren 2an eta 3an Rabaten egindako RAN goi-bileran, Espainiako Gobernuak presidentek autonomiaren aldeko eta saharar herriaren zuzenbidearen aurkako jarrera berretsi zuen, eta Afrika iparraldeko ezegonkortasunean eta segurtasunik ezan sakondu besterik ez du egin, bere jarrerarekin Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioa oztopatuz.

**USTE DUGU** estatu saharar aske eta independente bat dela irtenbidea, besteak beste, estatu hori badela onartzeak berekin ekarriko duelako Marokorekiko harremanak xantaiaren eta ustelkeriaren mende egoteari uztea.

Nazio Batuen Erakundeari **ESKATZEN** diogu lehenbailehen susta dezala Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justu eta behin betikoa, eta irtenbide hori erreferenduma eginez saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea praktikara eramatea da. Eta Nazio Batuen Erakundeak Genevan duen Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diogu Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen errelatore bat izenda dezala.

Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk bere funtzioak zabaltzeko **ESKATZEN** dugu berriro. Hori dela eta, Nazio Batuen Erakundeari eskatzen diogu misioari ahalmena eman diezaiola Marokok okupatutako lurraldeetan sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko.

Europar Batasunari **EXIJITZEN** diogu Marokoko Erresumarekiko lehenbaitako akordioan ezarritako giza eskubideak errespetatzeko klausula gauzatzeko.

Euskal erakunde publikoei **ESKATZEN** diegu Tindufeko kanpalekuetan dauden errefuxiatuei eta lurralde okupatuetako sahararrei laguntza solidarioa eta humanitarioa ematen jarraitzeko eta areagotzeko.

Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoerarekin duen erantzukizun legal eta politikoaz jabetuta, dei egiten diogu Espainiako Gobernuari:

1.- **OFIZIALKI ADIERAZTERA** "Madrilgo Akordioak" erabat deusezak direla, eta, adierazpen horrekin bat etorriz, saharar herriak bere autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa defendatzeko beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak sustatuko dituela.

Espainiako Estatuak ofizialki aitortzen du Madrilgo Akordioak, 1975eko azaroaren 14an sinatuak, ez zuela Lurraldearen gaineko subiranotasuna transferitu, eta ez ziela sinatzaileei potentzia administratzailearen izaera eman. Baldintza hori, Espainiak berak bakarrik, ezin du bere kabuz transferitu, eta, beraz, ez luke aldatuko Mendebaldeko Saharak nazioartean duen deskolonizatzeko dagoen lurralde ez-autonomo gisa duen izaera.

2.- Espainian Fronte Polisarioaren Ordezkaritzari estatus diplomatikoa **EMATEA**, Saharako Herriaren ordezkaritza bakar eta legitimoa den aldetik, NBEk hala

onartuta. Era berean, SEADa aitortzea.

Gure esker ona **ADIERAZI** nahi diegu saharar herriaren adiskidetasunaren alde egunero elkartasunean eta gizartean lan egiten duten elkarte eta talde solidarioei, haien helburu bakarra saharar herri senidearentzat etorkizun aske bat lortzea baita.

*Oporrak Bakean* haurren harrera-programaren funtsezko garrantzia **AITORTZEN** dugu, saharar eta euskal familien arteko elkartasunaren eta afektu- eta hurbiltasun-harremanen adierazle nagusia baita.

Bozketara pasa aurretik, Alkateak adierazi du, 40 urte, urte asko direla dauden egoeran egoteko.

## **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **5.- MOZIOA. EH BILDU ETA EAJ/PNV TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “2023KO MARTXOAREN 8RAKO EUDELEKO EREDUZKO ADIERAZPENA”.**

Leticia zinegotziak hartu du hitza eta mozioa irakurri du:

#### **2023ko martxoaren 8rako EUDELeko Ereduzko Adierazpena**

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak har-tzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, mundu-ko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko ga-raia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen bana-keta eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzen eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, uni-bertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatua eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemaitetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da...

- botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.
- **zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gaitasunak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.
- **zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesionala** prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei** aurre egitea.
- **emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- **lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratuz.
- **emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi intersektionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

Horregatik, euskal udalerririk, gure eskumenen markoan, **konpromisoa hauek hartzen ditugu**: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

1. Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerrri bakoitzaren beharretara egokituta.

2. Ahalduentze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea
3. Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuetan hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.
4. Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.
5. Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko
6. Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduentze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk
7. EUDELeri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitze gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea eta ordezkariak orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.

Alkateak hartu du hitza, eta udaletxeko berdintasun saila eta herriko Irura Moretuz elkarteak egiten duten lana goraiatu nahi izan du bozketara pasa aurretik.

## **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **6.- GALDE-ERREGUAK.**

EAK/PNVko bozeramaileak hartu du hitza eta Alkate Dekretuetan dauden bi dekretuei buruzko informazioa eskatu du:

-30/2023 Alkate dekretua: Irurako Komunitate energetiko sorrerarako asistentzia ematearena, kostua ez zen ageri.

Alkateak argitu du 2.400€ izango direla, datua dekretuan ez egotea akats bat dela, Idazkariak ere adierazi du dokumentu kontablearen datua jasoa dagoela dekretuan.

-42/2023 Alkate dekretua: Apaiz etxearen tasazioa.

Alkateak adierazi du, parrokiak informazio orientatzaile bat pasa dio Udalari, baina ez dela inolaz ere tasazio bat eta behar den bezala gaia aztertu aurretik tasazio baten bitartez kostatuko den datu errealistak izateko egingo dela tasazioa.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:30tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**